

2013-2017 EPERAKO PLAN ESTRATEGIKOA PARTAIDETZARAKO TXOSTENA



1.- PLANETAKO ESPARRUAK (BILAKAERA)

Plan Estrategiko desberdinetan joratu diren esparruen bilakaera ikus daiteke hurrengo koadroan:

HELBURU NAGUSIAK	Funtsezko Esparruak (14) 2003-2008 EBPN	Funtsezko Esparruak (10) 2009-2012 EBPN
1. Helburua Euskara ondorengoetaratzea (orain, Jabekuntza)	1.- Irakaskuntza	1.- Familia transmisioa
	2.- Euskalduntze Alfabetatze	2.- Euskalduntze-alfabetatzea
	3.- Familia jarraipena	3.- Irakaskuntza
2. Helburua Euskararen erabilera	4.- Administrazioa	4.- Administrazioa
	5.- Teknologia berriak	5.- Lan mundua
	6.- Enpresa mundua	6.- Aisia
	7.- Aisia	7.- Kirola
	8.- Kirola	---
	9.- Erlijioa	---
3.- Helburua Euskara elikatzea	10.- Corpus plangintza	8.- Kulturgintza (liburugintza, corpusa, eta erlijioa barru)
	11.- Liburugintza	9.- Komunikabideak
	12.- Publizitatea	10.- Teknologia berriak
	13.- Kulturgintza	---
	14.- Hedabideak	---

Ez da izan aldaketa handirik plangintza batetik bestera eta ondoriozta dezakegu jarraipena besterik ez dagoela.

2003-2008 epeko EBPN-k 14 esparru zituen eta 2009-2012 epeko EBPN-k 10. Murrizketaren/aldaketen arrazoiak:

- “Erlijioa”-ren esparrua kendu eta “aisia” esparruan sartu da.
- “Teknologia berriak” esparrua II. Helburu estrategikotik atera eta III. Helbueru estrategikoan sartu da.
- “Liburugintza” eta “Corpus plangintza” kendu eta “Kulturgintza” esparrura pasatu dira.
- “Publizitatea” esparrua kendu eta “Hedabideak” esparruarekin lotu da.



Bestalde, planen egiturak ez du aldaketa askorik izan. Hona hemen plangintzaldi bietakoak:

2003-2008 EPERAKO EBPN	2009-2012 EPERAKO EBPN
<p>1- Helburu nagusia: “...euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea...”</p>	<p>1- Helburu nagusia: Berdina</p>
<p>2- Helburu Estrategikoak - Ondorengoetaratzea - Erabilera - Elikatzea</p>	<p>2- Helburu estrategikoak Berdinak</p>
<p>3-Esparruak (14)</p>	<p>3- Esparruak (10) Murrizketa</p>
<p>4- Neurriak (esparru bakoitzeko estrategia nagusiak)</p>	<p>4- Estrategiak (esparru bakoit) Sentsibilizazioa Komunikazioa Laguntza tekn. eta ekon.</p>
<p>5- Ekintzak (neurri bakoitzeko)</p>	<p>5- Ekintzak (estrategia bakoitzeko)</p>


- “**Ekintzak**” dira garrantzitsuenak, plana bera zertan gauzatzen den islatzen duen atala, eta horrexek ematen dio edukia Planari. Plangintzaldi bakoitzerako ereduako ekintza zerrenda bat izan da beti, udalerrri bakoitzak bertatik aukeratzeko beta izanik, eta, bestalde, udal erakunde bakoitzak berak askatasun osoz asmatuiko ekintzak ere txertatu ahal izan ditu Planetan (Plan nagusietan zein urteko Kudeaketa Planetan).

2.- PLAN BERRIA ERATZEKO PARTAIDETZA

Plan berria eratzeko, eragile eta interesatu guztientzat topagune nagusia eta erabakitzailea Euskara Batzordea izango da. Topagune orokor horren baitan, lan-mahaiak eratuko dira. Hori orduko, udalerrri mailan deialdi orokorra egingo da, eragile eta nor-banako interesatu guztiei gonbitea eginez.

Topagunearen eta lan mahaien helburua eta funtzionamendua:

- **Helburua:** udalerriko Plan Estrategikoa gauzatzeko, esparruetako hausnarketa egin eta ekintza-proposamenak egitea.
- **Euskara Batzordea eta lan-mahaiak:** bilkura orokorrak egingo dira eta bakoitzean lan-mahaiak eratuko (horretarako esparru bakoitzeko hausnarketarako oinarrizko txostenak, ereduzko ekintza zerrendak eta lanerako fitxak egokituko dira).
- Euskara Batzordeak finkaturiko **kronogramaren arabera** ekingo dio, kontuan harturik kronograma hori aurreikusitako proposamena besterik ez dela eta bidea eginez egokitu egin ahal izango dela.
- **Lan-mahai bakoitzak dinamizatzailerik izango du:** Euskara Batzordean erabakiko da nortzuk izan, baina kontuan harturik lan metodologiaz eta Plan Estrategikoaren egituraz jabe izan beharko dutela.



KRONOGRAMA

URRATSAK	AZAR	ABEND	URT	OTSAI	MART	APIR
Euskara Batzordeari partaidetzarako proposamena aurkeztu eta ebatzi	Az. 21					
Partaidetzarako gonbitea kaleratu (OHARRA)		Ab. 4				
Euskara Batzorderako deialdia (lan-mahaiak eratu eta kronograma finkatu) eta hurrengo batzarrak (hiru batzar)		Ab. 12	Batzarra	Batzarra		
Lan-mahaien ekarpenak/proposamenak Euskara Batzordean komunean aztertu					Batzar orokorra	
Egokitutako behin-betiko Plan Estrategiko berria Eusk. Batzordean aurkeztu						Batzar orokorra

